

Euskal AEn merkataritza elektronikoan ari diren 10 langile edo gehiagoko enpresa-portzentajearen muturrak: %38 Debagoienan, %5 Enkarterrietan

Webgunea dutenen ia erdiak euskaraz ere badu

Eustaten datuen arabera, 2014an Euskal AEko 10 langile edo gehiagoko enpresen %28,8k salmentarik edo erosketarik egin zuen elektronikoki; muturrak %38 Debagoienan, %5 Enkarterrietan. Aurreko urtearen aldean puntu bat eta hiru hamarren gehiago Euskal AEn; bost puntu eta zazpi hamarren gehiago 2010ean baino. Debagoienaz (Gipuzkoa) gain, azpimarragarriak Gernika-Bermeo (Bizkaia, %34,9) eta Kantauri Arabarra (%30,5).

IKT ekipamenduetan -Informazioaren eta Telekomunikazioaren Teknologiak- 10 langile edo gehiagoko enpresen %94 pasak Internet dute, eskualde guztietan, batez bestekoa %97,8 delarik; web orria %86,5ek. Debagoienaz (Gipuzkoa, %88,7) gain, azpimarragarriak Durangaldea eta Gernika-Bermeo (Bizkaia, %87,5) eta Lautada eta Kantauri Arabarra (%85,4).

Internet baduten 10 langile edo gehiagoko enpresak, **Herri Administrazioekin haren bidez izapidetzen dutenak** 2015ean %92,1 dira; 2014an baino puntu bat gehiago. Nabarmenezko: Arratia-Nerbioi, Bizkaian, %99,1; Arabako Mendialdea %97,3; Debabarrena eta Goierri, Gipuzkoan %93,7; eskualde guztiak daude %90en gainera, Bidasoa Beherea (%86,0) izan ezik.

Sare informatikoen portzentajeak oso altuak dira 9 langile baino gehiagoko enpresetan, erkidego osoan. Batez bestekoan %94,4k ditu, 2014an baino puntu bat eta hamarren bat gehiago; aipatzekoak Durangaldea Bizkaian eta Arabako Errioxa (%100); Goierri Gipuzkoan, %97,7.

10 langile edo gehiagoko euskal enpresen %81,7k **kode irekidun programak** darabiltza, eta goraka ari da. Gorbeia inguruak, Araban, eta Debagoiena Gipuzkoan (%92,0); Gernika-Bermeo Bizkaian (%87,2) aipatu behar.

Euskararen presentzia euskal enpresen webetan

Euskaraz ere badiren webak batez ere Gipuzkoako enpresetan (%61,5etan batez beste) ditugu. Erkidegoan %48,6tan. Debagoienan %74,3, Goierri %67,3; Gipuzkoako gainerako eskualdeetan %54ren gainera. Bizkaian, Markina-Ondarroan %65,7; Gernika-Bermeon %63,8; lurraldeko batez bestekoa, %42,6. Arabako Mendialdean %52,8; gainerako eskualdeetan beheraka portzentajea; lurraldeko batez bestekoa %39,6.

Hiriburuetan Donostia aurreko nabarmen merkataritza elektronikoan eta euskarazko webetan; halere 10 langile edo gehiagoko enpresetan IKT teknologien ekipamenduen portzentajeak oso antzekoak dira hiru hiriburuetan.

Taula: Euskal AEko 10 langile edo gehiagoko establezimenduetako IKT ekipamenduak, hiriburu eta eskualdeen arabera (%). 2015

	Internet		Web orria		Sare informatikoak	Kode irekidun programak	Merkataritza elektronikoa (3)
	Konexioarekin	Administrazioarekin izapideak egiten ditu (1)	Badute	Euskaraz (2)			
EUSKAL AE	97,8	93,1	86,5	48,6	94,4	81,7	28,8
Vitoria - Gasteiz	96,4	93,6	85,1	41,7	95,9	80,9	26,8
Bilbao	96,0	91,8	85,4	44,7	96,2	81,8	26,1
Donostia - San Sebastian	97,0	91,5	87,7	65,9	97,3	83,7	34,5
ARABA/ÁLAVA	97,8	93,6	85,4	39,6	94,9	81,5	27,1
Arabako Ibarrek / Valles Alaveses	98,5	94,2	78,4	31,6	99,7	87,8	16,2
Arabako Lautada / Llanada Alavesa	96,2	93,6	85,4	41,4	95,2	80,5	26,5
Arabako Mendialdea / Montaña Alavesa	98,7	97,3	61,1	52,8	97,8	85,2	19,6
Errioxa Arabarra / Rioja Alavesa	99,1	93,0	74,2	28,4	100,0	86,6	30,1
Gorbeia Inguruak / Estribac. del Gorbea	98,7	95,0	84,9	30,1	99,3	92,0	26,9
Kantauri Arabarra / Cantábrica Alavesa	96,7	92,6	85,4	36,0	92,5	86,5	30,5
BIZKAIA	97,7	93,7	86,7	42,6	95,2	80,8	26,9
Arratia Nerbioi / Arratia-Nervión	98,1	99,1	73,1	37,1	99,6	81,7	12,9
Bilbo Handia / Gran Bilbao	96,0	92,9	86,1	41,7	95,6	81,9	27,0
Durangaldea / Duranguesado	98,5	95,9	87,5	41,1	100,0	79,9	24,7
Enkartzioak / Encartaciones	98,2	94,6	85,9	42,6	99,7	65,1	4,6
Gemika-Bermeo	98,2	98,8	87,5	63,8	95,2	87,2	34,9
Markina-Ondarroa	98,4	96,2	64,1	65,7	90,8	85,0	30,4
Plentzia-Mungia	95,5	96,6	84,2	46,6	90,4	78,3	33,8
GIPUZKOA	97,8	91,9	86,6	61,5	93,1	83,1	32,5
Bidasoa Beherea / Bajo Bidasoa	97,2	86,0	85,6	54,4	95,8	87,6	29,6
Deba Beherea / Bajo Deba	96,8	93,7	85,3	59,8	93,3	86,8	30,2
Debagoiena / Alto Deba	97,3	93,4	88,7	74,3	93,4	92,0	38,1
Donostialdea	96,9	92,0	85,3	60,6	95,9	82,3	31,7
Goierrri	96,8	93,7	86,3	67,3	97,7	88,7	26,0
Tolosaldea / Tolosa	98,8	91,1	86,3	56,9	87,2	78,0	36,8
Urola-Kostaldea / Urola Costa	94,4	93,1	84,9	61,1	90,3	83,0	34,3

(1) Internet baduten establezimenduen artean, administrazioekin elektronikoki elkarrengaiten dutenen portzentajea

(2) Web baduten establezimenduen artean, euskaraz baduteneen portzentajea

(3) Merkataritza Elektronikoen datuak 2014ko abenduaren 31koak dira

Iturria: Eustat. Informazioaren gizartearen inkesta. Enpresak

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62

Informazioaren gizartearen inkesta. Enpresak; prentsa ohar gehiago

Informazioaren gizartearen inkesta. Enpresak; datu-bankua